

Irudimena lantzen

Amaraun Ludotekako haurrek ipuin bat sortu zuten Kontu kantoiko ipuin kontalarien laguntzaz

Atzo arratsaldean Amaraun Ludotekara hurbildu ziren haurrek Kontu kantoiko ipuin kontalarien eskutik primeran pasa zuten.

Lehenik, guztien artean ipuin bat sortu zuten bi hitz kontuan izanik, marrazoa eta zuhaitza.

Eta, ostean, ipuin kontalariek azaldutako animalien istorioak entzun zituzten, baita abestu eta ideiak eman ere.

Ekimen berezi gehiago

Hau dugu Ludotekak hiruhilabete honetan prestatu dituen ekimen berezien lehenengoa.

Amaraun ludotekako arduradunek aurreratu digutenez, orain inauterietako mozorrorak prestatuko dituzte eta gurasoentzat makilaje tailerra ere antolatu dute. Guztiek inauterietako desfilean parte hartu dezaten.

Honetaz gain, kirol ekin-tzak, jolasak, tailer berezia LH-ko haurrentzat, irteerak eta hiruhilabetearen amaieran LH-koekin asteburu pasa

joango direla ere adierazi digute.

Era berean, izena ematea irekia dagoela gogoratu dute, baita interesatuek Ludotekara edo Ttakunera hurbiltzea besterik ez dutela informazioa eskuratu edo izena eman nahi baldin badute ere.

Gazteburua

Bestalde, Lasarte-Oriako 9 eta 12 urte arteko gaztetxoek bihar larunbata badute proposamen berri bat arratsalde atsegin bat igarotzeko, Gazteburua.

Herriko gazte guztiak gonbidatuak daude Gazte klubeko antolatzailerek Amaraun Ludotekaren ondoan, arratsaldeko 16:00etan jarri duten hitzordura.

Bi orduz, herriko gaztetxoek aukera paregabea dute lagunak egin eta ondo pasatzeko. Lehenik Matraka jolasa eta, eguraldiak laguntzen badu, aurreko Gazteburuan denbora faltagatik egin ez ziren Piraten jolasez ere gozatuko dute gaztetxoek. •



Ipuina kontatzeaz gain, marrazkiak ere egin zituzten Kontu kantoiko ipuin kontalariek Amaraun Ludotekan.



Ludotekara hurbildu ziren haurrek adi entzun zituzten ipuin kontalariek azaldu zituzten animalien istorioak.



Bi mila helegitetik gora Zubietako erraustegiaren aurka /3

KIROLA /6

LOKEko judoka eta atleten emaitza onak Euskadiko txapelketetan

TOKIKOM.com

Herriz herriko hedabide irakurrienak tokikom.com orrialdean /4-5

BERTAKO FABRIKAZIOA

Tripakiak- Saltxitxak
Txistorra
Odolkia- Solomoa ontzutua
Basurde burua
Etxeko txorizoa
Solomoa baratxuritan- Baserri pateca



ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451
Lasarte-Oria

Garmendia

OIHALAK

ZERTAZ MOZORROTUKO ZARA?
ETORRI GUGANA ETA AUKERATU OIHALA

Uistin kalea 11
Tel.: 943 376947
20160 LASARTE-ORIA

Neure kabuz



Haitiko lurrikara

Lurrikara izugarria. Negrara. Ezina. Egarria. Gosea... herioa. Eta gu hemen zer egin behar den, nola egin behar den, nork egin behar duen esaten, baina gu, hemen. Eta normala da, badakit. Non egongo gara bestela? Gure txokoan. Gure eguneroko bizitzari eusten. Gure egun honetako egin beharrak egiten. Hemen. Baina nola gaude gu hemen? Krisian? Lasai? Borrokan?

Aspaldikoa denez, ez dakit inor gogoratuko den baina, gure artean orain urte batzuk oso kanta eza-guna gertatu zitzaigun, beltz espiritualetik euskaratua zen eta honela zioen: "o gu hemen, bidean galduak... herio minez". Agian hori da, oraingoan ere, gogoratu beharko genukeena. Gu hemen gaude bai, baina hemen egoteko modu asko daudela; hemen egoteko postura hartu beharra daukagula, eta aukera guztiak ez direla berdinak izaten. Ez bai da berdin "herio minez" egote hori edo, "nire ez dagokidanez" bizitze hura.

Zorionez, ordea, zenbat jende dugun, gure artekoak, beren berena izan gabe arazoa, dena utzi eta prest azaltzen direnak! "Egin daitekeena egiteko" prest, nahiz batzuk horri ere "karitatea" deitu, zuri-keriaz. Hemen eta gu izaten nola ari garen gogoratzeko balio badigu oraingo Haitiko honek, ongi etorria izan bedi, ez tragedia bera, baizik informazioa eta mobilizazioa, eta ea hurrengoan nik zer egin dezaket galdetzeko moduan jartzen garen.

Xabier Andonegi

Zorion-agurrak



Endika

Zorionak pottoko 6 muxu handi, ondo pasa Larraitz eta familia gutziaren partez



Alejandro Romo

Zorionak Alejandro! Felix eta Paki zure lagunnen partetik!



Inge

Dagoeneko 3 urte! Zorionak piruja muxu haundi bat etxekoan partetik



Eneritz eta Gaizka

Zorionak zuen 6. eta 2. urtebetetze egunean. Ondo pasa! Aitaxo eta amatxo



Maider

Zorionak bitxito! Txokomarrubizko 2 muxu pottolo, aitaxo eta amatxoren partetik



Sebastian

Zorionak aitona urtebetetze eta santuan. Muxuak familiak, bereziki Maitane, Endika eta Julen.



Nora eta Lara

Zorionak zuen bogstargen eta lehenengo urtebetetzean! Denon partetik.



Iñaki

Nahiz eta berandu... Zorionak mutil! Zure Jalguneko lagunnen partetik.



Aitor

Zorionak pirata! Ondo pasa hirugarren urtebetetzean. Asko maite zaitugu!!



Josu

Gezurra dirudi baina 11 dira. Zorionak eta ondo pasa! Gurasoak, Xabier eta Aneren partetik.



Jose Luis eta Maria Luisa

Zorionak bikote zuen urrezko eztaingatik. Nola egiten da hainbeste aguantatzeko? Familiaren partetik

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Apartamentua salgai Lasarte-Orian. Egoera onean dago. Toki lasaia eta berritu berria. Biko-tearentzat egokia. Harremanetarako telefonoa: 657 708 866.

• Lasarten logela alokatzen da pisu konpartitu batean. Interesaturik daudenak 600 612 085 telefono zenbakira deitu dezakete.

• Gela bat alokatu nahi dut sukaldia erabiltzeko eskubidearekin. Lasarte-Orian edo inguruko herritan. Presazkoa da. 690 068 365, Iñaki, deitu 19:00etatik 20:00ak bitartean.

Salerosketak

• Egoera onean dagoen umeentzako arropa eta hainbat tresna salgai: bi sehaska, bikintzako ahlukia neguko zakuekin, etab. Arropa gordetzeko konprometzua. Prezioa 450 euro, negoziagarriak. Harremanetarako, isa.g.77@gmail.com edo smsak 687 756 358 zenbakira.

• Hyosung markako motorra saltzen dut, Comet 125 Naked modeloa. 2007 urtekoa 6.200 Km ditu. Kolore beltza. 1300 euro. Interesatua bazaude, 626863416 mugikorrera deitu edo hyosungcomet125@hotmail.com-era idatzi. (Iruñea)

Lan-eskaintzak

• Ingelesko magisteritzako 3. mailako ikaslea naiz eta lehen hezkuntzako zein DBHko lehenengo zikloko ikasleei klaseak emateko prest nago (ingelese edota beste ikasgai batzu). Interesatuak deitu zenbaki honetara: 943372874/635720017 Urtzi.

• Adineko pertsonak zaintzeko eskaintzen naiz. Telefono zenbaki honetara deitu mesedez, 648 458 523.

• "Interno" edo orduka lan egiteko eskaintzen naiz. Telefonoa: 676 188411

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburak.com
Tel.: 943 366858 • Geltoki 4

* Atal honetako oharrak, asteazken eguerdia baino lehen bidali behar dira.

<p>Jaiotzak</p> <p>Jessyca Bermudez Gaspar, urtarriaren 14ean Jon Sanz Artetxe, urtarriaren 13an</p>	<p>Heriotzak</p> <p>Sergio Rodriguez Vicente, urtarriaren 18an 70 urte zituela Maria Jesus Arregui Cincunegui, urtarriaren 14ean 81 urte zituela Hermelinda Plaza Gil, urtarriaren 14ean 80 urte zituela Santiago Celorrio Virto, urtarriaren 3an 65 urte zituela</p>
---	--

Guardiak

Ostirala, 22
De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151
Larunbata, 23
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
Igandea, 24
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Astelehena, 25
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774
Asteartea, 26
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
Asteazkena, 27
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
Osteguna, 28
Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta Euskarako Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikulueta eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Bi mila helegitetik gora erraustegiaren aurka

■ Gipuzkoako Erraustearen Aurkako Plataformek eta talde ekologistek aurkeztuak ■ Herrietara bi kilometroko tarterik ez dagoela salatzen dute

TXINTXARRI

Erraustearen Aurkako Gipuzkoako Plataformen Koordinakundeak beste 366 helegite aurkeztu ditu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak Donostian duen egoitzan, errauste planta erakitzearen aurka. Aurretik pasa den abenduaren 28an beste 1709 aurkeztu zituztenez, guztira 2075 banako helegite jarri dira erraustegiaren aurka. Gainera, Ekologistak Martxan, Donostia Bizirik eta Lasarte-Oria Bizirik elkarten helegiteak gehitu behar dira.

Erraustegiaren aurkako 2075 helegite hauetako batzuetan salatzen da besteak beste, erraustegi honetatik inguruko herrietara (Zubieta, Usurbil eta Lasarte) ez dagoela bi kilometroko tarterik eta beraz mota honetako jarduer-

tarako legeak agintzen duena ez da bete. Era berean ez da aintzat hartu Europako Kontseiluak hondakinak kudeatzeko hierarkiari buruz 2008ko azaroaren 19an aurkeztutako zuzentaraua eta ez da azterketa konparatibo bat egin kokapen posibleen artean.

35.000 sinadura

Bestalde Erraustearen Aurkako Plataformako kideek jakinarazi dute orain dela hilabete batzuk Hondakinaren Euskal Legea eskatuz 35.000 sinadura aurkeztu zirela Eusko Legebiltzarrean.

Plataformaren iritziz, "helegite kopuru honek erakusten du herritarren artean oso zabaldua dagoela erraustetaren aurkako iritzia, konturatzeko direla osasunaren ikuspegitik kaltegarria dela eta

ekonomikoki garestia. Alderdi politiko batzuk (PNV, PSE eta PP) eta hauek kontrolatzen dituzten Eusko Jaurlaritza, Legebiltzarra, Foru Aldundiak eta hainbat Udal dira konturatu nahi ez dutenak".

Atez atekoa

Bitartean aurrera jarraitzen du Usurbilen atez ateko bilketak, hondakinaren %80 inguru gaika bilduaz eta udaberri honetan horrelako sistema ezartzeko azken pausua ematen ari dira Hernanin eta Oiartzunen.

Gipuzkoako beste herri batzuetan ere azterketak hasiak dira epe laburrean atez ateko bilketa sistema gauzatu nahian.

Usurbilgo emaitzak beste herrietan ere frogatzen direnean are eta garbiago geratuko da errauste planta jada ez dela beharrezkoa. •

30.000 euroko laguntza bidaliko du Lasarte-Oriako Udalak Haitira

Lasarte-Oriako Udalak 30.000 euro bidaliko ditu Haitira, urtarrilaren 12n izandako lurrikara jasan zutenei laguntzeko.

Jakina da astinduak Haitiko ondasun gehienak suntsitu zituela eta haitiar asko ezer gabe geratu direla. Amerikako tokirik pobreenetarikoa ere bada Haiti. Larrialdiko laguntza hau Udaleko kooperazio

arloak Gurutze Gorriaren bidez bideratuko du.

Era berean, Udalak deia luzatu die herritarrei euren laguntza eman dezaten. Horretarako, Gurutze Gorriak kontu korrante bat zabaldu du Euskadiko Kutxan 3035 0050 71 0500046056 zenbakiarekin.

Horrela, prest dauden

herritarrek eta elkarteek beren diru-ekarpenak egin ahal izango dituzte aipatutako kontu korrante horretan.

Lasarte-Oriako alkatetzak ahal duten lasarte-oriatarrek bultzatu nahi ditu laguntza eman dezaten "txikia bada ere, guztiaren batura asko izan baitaiteke" behar dutenentzat, alkatetzak adierazi duenez. •

ATSOBAKAR

Auto-karabana lan baldintzak salatzen



Kotxe-ilara eta txistu-hotsak izan ziren nagusi atzo goizeko 11:00etan herrian. Lehengo asteko ostiralean amaitzekoak baziren ere, inongo akordiorik lortu ez, eta kale-agerraldiak mantentzea erabaki zuten Atsobakarreko langileek haien lan baldintzak salatzen. Atzokoa berezia, "eskatutako isiltasunaren" aurrean, zalaparta. Gaur berriro entzungai egingo dena.

Lehengo asteko ostegunean, plenoa amaitu eta alkateak, langileak ordezkatzen dituen sindikatu bati deitu eta "langileak ostiraleko kale-agerraldiak bertan behera uzteko eskatu zion" aipatu digute langileak. Hauek bestetik, alkateari enpresan dauden bi sindikatuen ordezkariekin biltzean, eta subrogazioa paperean islatuta eta sinatuta dagoenean "orduan isilduko gara" adierazi ziotela jakin arazi digute langileak.

Gauzak horrela, aste osoan zehar ikusi ditugu Atsobakarreko langileen kale-agerraldiak herrian zehar. "Orain arte genituen lan baldintzak berreskuratu arte ez gara isilduko ezta geldirik geratuko ere" gaineratzen dute. •

SAHARAREN ALDE

Euskal karabanako bilketako azken egunak

Lasarte-Oriako Saharen herriko lagunak taldeak bi aste daramatza Lasarte-Oriako ikastola eta eskolatan, supermerkatuetan eta Emakumeen Zentro Zibikoan, elikagai eta konpresa bilketa egiten, baita Añorga eta Usurbilgo ikastolatan eta herri honetako dendetan ere.

Sahararen Aldeko Euskal Karabana *Piztu itxaropena* ekimena dugu hori eta gaur eta bihar bilketako azken bi egunak dituzte. Gaurkoan herriko ikastetxe, supermerkatu, zein Emakumeen Zentro Zibikoan utzi daitezke oraindik produktuak, arroza, leka-leka, pasta, hegalauea eta sardinak oliotan, azukrea eta konpresak. Bihar, aldiriz, Urbil merkatal-gunean egongo dira Sahararen herriko lagunak taldeko kideak bilketari amaiera emanaz. •

BERTSOAK

Lasarteoriatarrek Hernanin Tabernako Bertsolarien XIV. Txapelketan

Hernaniko Garin tabernan egin zen astearte gauean Tabernako Bertsolarien XVI. Txapelketa eta koplak kantuan ederki aritu ziren 16 bertsolari, tartean, Aitor Atxega eta Joxe Mari Agirretxe lasarteoriatarrek, eta baita *Oxan*, Jon Altuna, gure lankidea.

Aitor Atxegak guztiak dantzan jarri zituen gitarra soinean hartuta, Joxe Mari Agirretxe ere fin ibili zen eta Jon Altunak, nahiz eta ongi jardun, ezin izan zuen iaizko garaipena errepikatu. Azkenean, Maialen Lujanbiok jantzi zion txapela Aitor Barrenetxea garaileari. •



Aitor Atxegak dantzan jarri zituen guztiak. Atzean, Aitor Barrenetxea irabazlea.

www.tokikom.com

Herriz herriko hedabide irakurrienak, interneten, web orrialde bakarrean

■ Topagunea euskara elkarteen federazioko kide diren aldizkariak daude www.tokikom.com web orrialdean ■ Abendutik daude Txintxarri eta Euskal Herriko beste 20 medio elkarrekin sarean ■ Guztiira 220.000 irakurle inguru dituzte, merkatu interesgarria edozein bezeroentzat



Joan den abenduaz gerotzik, Euskal Herriko herriz herriko aldizkari eta egunkari irakurrienek web orrialde berri bat sortu dute: www.tokikom.com. Topagunea euskara elkarteen federazioko kide diren hedabideak dira, urteotako esperientzia eta lanari esker, bakoitza bere eremuan lider izatera iritsi direnak. Tartean dago TXINTXARRI.

Herriz herriko hedabide irakurrienak, interneten, web orrialde bakarrean Guztiira 20 hedabide sortu dute www.tokikom.com, aldizkari eta egunkari. Herri edo eskualdeko hedabideak dira, eta denen artean, 220.000 irakurle dituzte.

Tokian tokiko 20 hedabide irakurrienek, bat egin, eta interneten orrialde berri sortu dute, www.tokikom.com. Web orrialde horietan, irakurleak herriz herriko informazio irakurritokoa, informazio osoa eta momentuko, herri horietako aldizkari eta egunkariak ematen dituen.

Web orrialde berri hau sortu dutenak dira, Tokikom taldea osatzen duten hedabideak (arte team, Hernaniko Kronika *). Denak euskerazko hedabideak dira, eta Topagunea euskara elkarten federazioko kide dira guztiak.

Antzoa 20 hedabide
Tokikom.com 20 hedabideren artean sortu dute, eta laster gehiago izatea espero dute, bakoitza bere eremuan lider izatera iritsi direnak.



LASARTE-ORIA PRODUKZIOAK AURKEZTEN DU...
INAUTERIAK 2010 GAIA: PELIKULAK

Ostailaren 13an, 16:30ean desfile erraldoia Inigo de Loiola kalean

Taluk, 943 371448

Bilerak ostiraletan 17:00etan Inigo de Loiola kaleko Gazte Lokalean



www.txintxarri.com web orrialdeak duak grad berriak dira. Ibura berriekin besterak hobitza autera berri ezarritzen ditu.

Honakoak dira Tokikom osatzen duten aldizkari eta egunkariak:

- Eta Kifoi (Eibar)
- Alkor (Txoriñeri)
- Aluri Astekaria (Beterri-Buruntza)
- Aluri hamaboskaria (Beterri-Aztondo)
- Arbolito (Durangaldea)
- Azeleheneko Golenkaria (Debagotena)
- Barren (Egolibar)
- Begitu (Arriola)
- Beron (Maitaberria)
- Drogeñetuturri (Ermua, Mallabia)
- Golenkaria (Debagotena)
- Guabe (Salnasa)
- Hernaniko Kronika (Hernani)
- Kanera (Aia, Orio)
- Oamotz (Urebe-Zumarraga)
- Pili-Pilean (Sorraluze)
- Prest (Deustaldea)
- Tipi-Tapa (Baztan-Bidasoa-Malemea)
- Txintxarri (Lasarte-Oria)
- UK (Urbe Koska)

garia eta eraginorra izan daitezkeen merkatuak, herri edo eskualde jakin batek unibertsitate iritsi nahi duen edozein bezeroentzat.

Komunikabideak ezagutu
Tokikom.com helbidera sartzen denak aukera dauka hedabide bakoitzari buruzko informazioa lorzeko.

Honretarako nahikoa du, berak nahi duen herri edo eskualde jakin batek unibertsitate iritsi nahi duen edozein bezeroentzat.

LASARTE-ORIA PRODUKZIOAK AURKEZTEN DU...

INAUTERIAK 2010 GAIA: PELIKULAK

Ostailaren 13an, 16:30ean desfile erraldoia Inigo de Loiola kalean

Taluk, 943 371448

Bilerak ostiraletan 17:00etan Inigo de Loiola kaleko Gazte Lokalean

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Foto deplazazioa argi pultsatuarekin

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputsetako tratamenduak
- Beste hainbat zerbitzu

Ustina Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 23

11:30ean, Ostarar-Zarautz (Emakumezkoen KDT F-11) Michelinean.
13:00etan, Ostarar-Mutriku (Partehartze infantilak, kopa) Michelinean.
15:30ean, Ostarar-Usturbi (Emakumezkoen Liga, kopa) Michelinean.
17:15ean, Texas Lasartearra-Ikaskerri (I. Erregionala, kopa) Michelinean.

11:00etan, Euskalduna-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Allurralde, Andoainean.
15:30ean, Intxurre-Ostadar (I. Jubenila, kopa) Elorri, Alegin.
15:45ean, Mundarro-Ostadar (Erregional Goren) Zarkumendegi, Astigarragan.
16:30ean, Idiazabal-Texas Lasartearra (I. Jubenila, kopa) Arizkorreta, Idiazabalen.

Igandea 24

10:30ean, Ostarar-Ilintxa (I. Kadetea, iguera fasea) Michelinean.
12:45ean, Sporting de Herrera-Ostadar (Infantil txikiak, txapel-dunen fasea) Herrera, Donostian.
16:00etan, Anaitasuna-Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila, iguera fasea) Txerloia, Azkoitian.

FUTBOL 7

Larunbata 23

20:30ean, Spartak de Obelix-Antiguotarrak (III. Maila) Berio, Donostian.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 23

18:15ean, ISU Ieihoak-Tellatuberrri-Zaldibi (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Kiroldegian.

Igandea 24

10:30ean, Aldaz H.K.-Lakunza Garraioak (Nazional B maila) Kiroldegian.



HERRIKO TXAPELKETA

Michelingo areto-futboleko gunean

Ostirala 22

20:00etan, Naiban-Biyona
20:30ean, Ilargi-Obelix

Larunbata 23

09:15ean, Morrison-Epel
10:15ean, Goiz Argi-Obelix
11:15ean, Okela-Viña del Mar
12:15ean, ISU Ieihoak-Tragoxka
13:15ean, Mingallon-Izkiña
17:00etan, Buenetxea-Oria kris.

Igandea 24

09:10ean, Siglo XX-Izarra
10:00etan, ISU Ieihoak-Epel
10:50ean, Naiban-IOB H.K.
11:40ean, Lekuona Mena-Biyona

SASKIBALOA

Ostirala 22

20:30ean, STL Azkune-Jalai (Gizonen seniorrak) Santo Tomas Lizeoa, Donostian.

PILOTA

Larunbata 23

16:00etan, Intza I-Mundarro I (Eskuz binaka, infantilak) Michelinean.
16:00etan, Intza 2-Hernani 2 (Eskuz binaka, infantilak) Michelinean.
18:00etan, Intza-Antiguako (Eskuz binaka, II. seniorra) Michelinean.
16:00etan, Intza I-Zumaia 2 (Eskuz binaka, alebinak 2. urtea) Azkoitian.
16:00etan, Intza 2-Zestoa (Eskuz binaka, alebinak 2. urtea) Azkoitian.



ATLETISMOA

Larunbata 23

Goiz osoan, LOKEko atletak Partaidetza Mugagabeko probatan parte hartuko dute Anoetako belodromoan, Donostian.

JUDO

Igandea 24

10:00etan, LOKEko judoek borroka eta sanboko Euskadiko txapelketan lehiatuko dira, Donostian.

BOLA-JOKO

Igandea 24

Egun osoa, Ostararreko bola-joko taldeak bikotekako txapelketan parte hartuko du, Añorgan.

Martinez judoko Euskadiko txapeldun

■ Iñaki Elizalde eta Leire Zubizarretak judoek junior mailako Gipuzkoako txapelketa eskuratu zuten

LOKEko judoek ez dute atse-denik hartzen, urtarilaren 9an, Gasteizen kadete mailako Euskadiko txapelketan lehiatu ziren eta lehengo asteburuan, berriz, Gipuzkoako junior txapelketan Lezon.

Bi txapelketetan emaitza onak lortu zituzten Gorka Aristegiren mutilek, Euskadiko txapel-dun bat eta zilarrezko hiru domina eta Gipuzkoako bi txapeldun eta brontzezko domina bat.

Euskadiko txapelketa

Esteban Martinez, Josu Olmo, Mario Garrido eta Abayuba Gutierrez izan ziren kadete mailako Euskadiko txapelketan parte hartu zuten LOKEko judokak.

Eta guztietatik, Esteban Martinez dugu 55 kilo azpiko kadete mailako txapeldun berrira. Estebanek hiru konbate irabazi eta gero eskuratu zuen txapela, baita Salamancan maiatzaren 1ean jokatzaren Espainiako txapelketarako txartela ere.

Bestalde, Josu, Mario eta Abayubak bakoitza bere mailatan, bigarren bukatu zuten oso txapelketa ona eginez.

Eta dominaz gain, hiru gazte hauek otsailaren 28an Madrilen



Esteban, ezkerreko lehena, eta Euskadiko txapelketan parte hartu zuten judokak.

izango den Espainiako Opende-rako sailkapena ere lortu zuten.

Gipuzkoako txapelketa

Era beran, lehengo asteko, Gipuzkoako txapelketan, Gorka Aristegiren mutilek primerako emaitzak lortu zituzten. Bi txapeldun, Iñaki Elizalde 100 kilo azpiko mailan eta Leire Zubizarreta 70 kilo azpiko mailan eta brontzezko bat, Esteban Martinez.

Bestalde, Mario Garcia eta Asier Sagasti lasarteoiatarrek bosgarren postua eskuratu

zuten bere mailatan.

Gorka Aristegi entrenatzaileak aipatu digunez, emaitzak orokorrean oso onak izan dira, "Mario eta Asierrek nahiz eta domina ez lortu, oso txapelketa ona egin dute. Eta Iñaki eta Leirek arazorik gabe irabazi dute."

Baina lanean jarraitu behar dute. Asteburu honetan, sanbo eta borrokako Euskadiko txapelketa dute Donostian eta hurrengoan, junior mailako Euskadiko txapelketa eta 23 urte azpiko Gipuzkoako txapelketa Lezon. •

Imaz, Larrañaga eta Yaben atletak txapeldun

Txapelketatik txapelketara dabilen LOKEko beste ataleko bat, atletismoa dugu: Unai Imaz, Irati Larrañaga eta Olatz Yaben Euskadiko txapeldun izan dira. Lehengo asteburuan, Donostian eta Gasteizen burutu ziren Beterano, Junior, Jubenil eta Kadete mailako Euskadiko txapelketan emaitza paregabeak eskuratu zituzten Oskar Goikoetxearen mutil eta neskek.

Unai Imazek 800 metroetan junior mailako txapeldun izatea lortu zuen; Irati Larrañaga jubenilak, berriz, jauzi hirukoitzean urrezko domina lortu zuen, zilarrezkoa luzeran eta brontzezkoa alueran; Leire Amiano kadeteak ere domina eskuratu zuen pertikako proba 2. postuan bukatu ostean, eta Gaizka Ormazabalak juniorren 200 metroko finalean 4. postuan bukatu zuen. Bestalde, Antonianos taldean dabilen Olatz Yaben herritarrek ere Euskadiko txapela lortu zuen 600 metroko lasterketan.

Atletismoaz gozatu

Era berean, Espainiako atletismo federazioak antolatuta, Atletismoaz gozatu lehiaketa jokatu zen lehengo asteburuan Zaragozan.

Bertan Landaberri ikastolako 1go DBH mailako Saioa Olasagasti, Maria Eugi, Patricia Prieto eta Ane Galardi lasarteoiatarrek lehiatu ziren, Amaia

Andres eta Oscar Goikoetxea entrenatzaileen laguntzarekin.

Nahiz eta 9 taldeen artean lasarteoiatarrek 7. postua lortu, denak oso pozik itzuli dira, batetik Landaberri Estatuko txapelketa batean parte hartu eta jarritako helburua gainditu dutelako, baita neska gaztetxoek izandako esperientzia oso aberasgarria izan delako ere. •



Landaberri BHIko neskek eta bere entrenatzaileak lehiatu ostean.

Egunero

Erakusketa


ARTEA AFRIKAN izeneko erakusketa ekarri du Max Mbaye senegaldarrak. Erakusketa koloretsua Jalgi kafe antzokian ikusi daitekeena. Lanak salgai daude. Jalgi kafe-antzokian, 9:00etatik 23:30era.



Ostirala, 22

Antzerkia

YO SERÉ LA NUMBER ONE antzezlana eskainiko du Matxinek Gazteria sailak eta Xpression kultur elkarteak antolatzen dituzten Gazte emanaldien barruan. Lehenengoz kafe antzerkia eskainiko da. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan, GAZTELANIAZ.



El luchador filma ostegunean

EL LUCHADOR filma ikusgai izango da Okendo Zinema Taldeak antolatutako osteguneko zinean. Sarrera, 4,15 euro.

Randy "The Ram" Robinson (Mickey Rourke), erretiratu-tako, wrestlinggo borrokalari profesionala da. Larogeiko hamarkadan arrakasta lortu eta gero, bere lanbidearekin jarraitzen du, zirkuito independentetan, hirugarren mailako ring-etan borrokatuz.

OSTEGUNEAN, HILAREN 28AN
KULTURETXEAN
21:30EAN, GAZTELANIAZ

Asteazkena, 27

Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUZAK ipuin bat irakurriko die liburutegira hurbiltzen diren haur guztiei. Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan, EUSKARAZ

Ostirala, 29

Kontzertua

V. MUSIKA TOPAKETEN barruan Irungo ahots zurien NAYADE ABESBATZAK kontzertua eskainiko du. Brigitarren komentua, 19:30ean.

Antzerkia

"KLOWNTUZ! MENDIA!" lana eskainiko du Kili Kolo Taldeak. Emanaldi hau abenduan bertan behera geratu zen eta orain eskainiko dute. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean.

EUSKARAZ.



Larunbata, 30

Antzerkia

Eusko jaurilaritzak babestua, DESNUDOS EN CENTRAL PARK umorezko antzezlana eskainiko da. Manuel galiana, Enma Ozores, Maria Jose Alfonso, Paco Piquer eta Walter Gamberini ditugu antzezleak. Sarre- ra, 12 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan eta 22:00etan.

GAZTELANIAZ.



Igandea, 31

Zinea

LLUVIA DE ALBONDIGAS filma haurrentzako zinea atalean ikusgai. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ.



Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera

10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

ESAZU IRRATIA



Esazu irratiko programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

EHNarekin arazoak izan badituzu

EHNarekin arazorik izan badituzu edo/eta informazio gehiago nahi baduzu, harremanetan jarri zaitezke posta elektronikoko honetan lasarte@baieuskalherriari.org. Ez izan dudarik eta bidali mezua lasai asko!

Euskal Inauterien konpartsa

Euskal Inauterien konpartsa antolatzaileek jakin arazi nahi dute entsaioak hasi direla. Hauek Landaberri BHIko egoitzan egingo dira astearte eta ostegunetan 20:00etatik 21:00etara. Animatu zaitezte parte hartzera!

Nazimenduko lagunak eskerrak

Nazimenduaren lagunak taldeak eskerrak eman nahi dizkie abenduaren 24an egindako eskean dirua eman zuten guztiei. Dirua Yankee II

Nikaraguako herrixkara bideratuko da Alejandro Romoren bitartez. Mila esker!

Maria Auxiliadoraren omenezko meza

Gaur, arratsaldeko 17:30 Arantzazuko elizaren kape- ran, Maria Auxiliadoraren omenez, eta hilabetero beza- la, meza ospatuko dute.

Marrazki eta pintura eskola

Lasarte-Oria Bizilagun Elkar- teak jakinarazten du, marraz- ki eta pintura klaseak hasi dituztela dagoeneko eta oraindik izena emateko auke- ra dagoela. Klaseak Kultur Etxean dira asteazken eta osti- ralean 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era.

Erketzeko inauterietako konpartsa

Erketz Dantza Taldean jakina- razi nahi du inauterietako

beraien konpartsan ateratze- rako, entsaioak urtarrilaren 26an, otsailaren 2 eta 9an (asterteetan) izango direla Zumaburuko eskolan iluntze- ko 20:00etan.

Gaia Munduko Dantzak da, ze herrialdeko moztorra pareja bakoitzak erabaki behar du. Gero dantzak denok batera egingo ditugu. Edonorentzako dago zuzen- dua, asteartean azaldu besterik ez du egin behar, bai bai ume edo bai heldu.

Santa Ageda eskea

Erketz Dantza Taldea urtero ateratzen da otsailaren 4an Santa Eskean. Aurtengo entsaioa urtarrilaren 29an, ostirala, izango da Zumaburu- ko eskolan iluntzeko 8etan. Parte hartu nahi duenak, entsaioa azaltzea besterik ez du. Tokila bat agertu da

Gabonetan erdigunean haurrentzako tokila bat agertu

da. Artilezkoa da, beltza. Galdu duenak berreskuratze- ko Ttakunetik pasa dadila (943 371448).

Sahararren aldeko laguntza

Sahararen Aldeko Euskal Kara- bana hasi da lanean "Piztu Itxaropena" lelopean eta hain juxtu gaur arte bilduko dituzte elikagai eta konpresak Lasarte- Oriako ikastola eta eskoletan, super-merkatuetan eta Emaku- meen Zentro Zibikoan.

Añoiga eta Usurbilgo ikas- toletan eta herri honetako dendetan ere jarriko dira bil- tzeko ontziak eta baita, hurrengo larunbatean, urtari- laren 23an, Urbil merkatal- gunean ere.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858

txintxarri@txintxarri.info

txintxarri@ttakun.com



Inauteriak

Aurten ere Ttakun Kultur Elkarteak deialdi zabala egi- ten die herritarrei inauterie- tako desfile bateratuan parte hartzeko. Ostiralerako dei- tutako bileran, Filmak gaia lantzea aukeratu zen. Parte hartzeko asmoa baduzue, ostiral honetan, hilaren 22an beste bilera bat egingo da Iñigo de Loloia kaleko Gazte Lokalean 17:00etan. Edozein zalantzarekin deitu edo pasa lasai Ttakunetik, 943 371448. Animatu eta hartu parte!



Garaikoetxeako jolaslekuan Landaberriko txikiak gurasoei ikasitakoa erakutsi zieten.



Landaberriko gaztetxoek danbor nagusiak ongi ikusi eta haien aginduak ederki jarraitu zituzten.

Danbor hotsek festari aurre hartu zioten

Lasarte-Oriako ikastetxeetako haurrek danborradako doinuak trebeziaz jo zituzten asteartean

San Sebastian eguna genuen asteazkenean, Donostiako egun handia eta jai eguna bertan lan egiten dutenentzat, baita etxeko txikiarentzat ere.

Horregatik, asteartean Lasarte-Oriako ikastetxeetako danborradek aurre hartu zioten Donostiako festari.

Zumaburu-Sasoeta ikastetxean eta Landaberri ikastolan, 16:00ak aldera, *Donostiako Martxa*, *Tatiago* edo *Iriarena* ziren entzundako doinuek batzuk eta honekin batera, noski, danborren barrunba.

Guztiak dotore, norberak egindako jantziarekin eta danborra soinean zutela, gurasoei azken aste hauetan ikasitakoa erakusteko irrikitan zeuden etxeko txiki, zein gaztetxoak.

Sarriegiren doinuak entzungai jarri eta danbor

nagusiek ezartzen zuen errit-mora egokituz, trebeziaz jo zituzten guztiek danborrak.

Baina festak hasi baino ez dira egin. Izan ere, *Donostiako martxa* dioen bezala, *donostiarrei oihu egitera gatoz, poz handiz, inauteriak datoz.* •

Azken asteetan ikasitakoa gurasoei erakusteko irrikitan zeuden etxeko txiki, zein gaztetxoak



Bi ikastetxeetako gaztetxoak elegante zeuden norberak egindako jantziarekin.



Zumaburuko txikiak gurasoei haiekin batera danborrada jotzea eskatu zieten.



Sasoeta ikastetxeko gazteek gimnasioan bildu ziren danborrada jotzeko.